

«Europako azken tribu matrilineala gara»

MARI CARMEN BASTERRETXEA

ANTROPOLOGOA

Hezkuntzan dabil lanean eta Antropologian doktorea da. Hamarkadak daramatza matrilinealtasunaren arrastoen atzetik, Euskal Herria jatorrian kultura matrilineala zela oso garbi baitauka.

Amagoia Mujika Telleria

Zorroagako unibertsitatean ikasle zela, 80ko hamarkadan, pasilloetan ikusten zuen Julio Caro Baroja. Jendartean matrilinealtasunaren inguruko eztabaida piztuta zegoen ordurako eta bigarren mailako ikasle gazte hark jakin min handia zuen gaiarekin. Hartara, Caro Barojarengana hurbildu eta bere klaseetara entzule moduan joateko baimena eskatu zion. Geroztik, kultura matrilinealaren ikerketan dabil, oso garbi baitauka Euskal Herria kultura matrilineala dela.

Hamabost urteko ikerketa lanaren emaitza da, hain justu, "Euskal Herria, kultura matrilineala" izeneko liburua. Bertan, lau mila urte atzera egin eta euskal jendartearen antolaketa soziala, sinismenak eta errituak zertan ziren agertzen du Basterretxeak. Nondik gatozen jakin, nora joan nahi dugun erabakitzeke.

Deskribatzen duen jendarte matrilinealean, gizonen eta emakumeen arteko oreka eta lurrarekiko lotura eta errespetua dira zutabe nagusiak. Antropologoak garbi dauka: «Patriarkatua kultura matrilineala zapaltzen ari da modu kontziente batean eta gu Europako azken tribu matrilineala gara».

Zer da matrilinealtasuna? Patriarkatuaren parean jartzeko joera dago eta ez dira parekoak, ezta?

Gure gizartea bere jatorrian amaren aldetik sortutakoa da. Zalantzarik gabe, Ortiz Osese, Jose Miguel Barandiaranek eta Julio Caro Barojak ekarpen handiak egin zituzten bereziki Mariri, etxekoandreari, eta euskal kosmologiari buruz. Aditu horien ekarpenek adie-

razten digute euskaldunek beste jatorri bat zutela, ez zena patriarkala, eta euskaldunen kultura ez zela kultura espainiarra. Baina aditu horiek ez ziren konturatu senide egitura matrilinealak zerbait gehiago adierazten zuela, gizarte bat eraiki zuela. Bertan natura zen erreferentea, taldearen elkarbizitza berdintasunean kudeatzen zen eta oreka lortu zuten gizonen eta emakumeen artean. Hartara, gizonak eta emakumeek botere aginte antzekoa zuten begirunean oinarrituta.

Matriarkatuaren definizioan dago gakoa. Oker gaude ulertzen badugu matriarkatuan emakumeak duela botere osoa eta agintea gizartean, emakumea gizon patriarkalaren lekuan jartzen baitugu. Definizio horrek gizarte patriarkalaren eragina du.

Baina hori guztia hausteko eta hankaz gora jartzeko indar handia egin zuten kolonizazio prozesua martxan jarri zutenek. Eta oraindik prozesu hori ez da amaitu. Gure izatearen eta kulturaren arrasto guztiak ezabatuak direnean, orduan esango dut kolonizatuak gaudela. Bitartean, kolonizazio prozesuan gaudela esaten dut. Horregatik garrantzitsua da eustea, geratzen zaigun gutxi horri eustea.

Matrilinealtasuna orekan oinarritua dago eta naturarekin harreman estua dauka.

Noski, naturarik gabe ez gara ezer. Gure erreferentzia Mari da, ama lurra. Lurrik eta naturarik gabe ez dago ezer, gure herria beti egon da lurrari estu lotuta, natura errespetatzen jakin du, orekan bizitzen. Gure aurrekoetatik jaso duguna hori da. Beste gauza bat da orain nola bizi garen.



Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

Liburuan diozunez, herri indigenen sinismenak ama lurraren begirunean ezarririk zeuden eta euren garapen teknologikoa komunitatearen beharretara egokitu zuten. Aldiz, Europako etnozentrisismoak bizimodu hori mespretxatu egin zuen. Garapen teknologikoa inposatu egin zioten gizarteari, garaian agintzen zutenen mesedetan.

Bai, horregatik esaten dut herri naturala garela. European, paleolitikoan, herriak oreka batean bizi ziren, matrilinealtasunean. Paleolitoaren bukaera inbasio indoeuoparrekin etorri zen. Hor inposatu zen

«Gizarte matrilinealetan natura zen erreferentea, taldearen elkarbizitza berdintasunean kudeatzen zen eta oreka lortu zuten gizonen eta emakumeen artean»

patriarkatua; gizonak izan behar zuen agintaria. Inbasio izugarri gogorra izan zen. Gu gara garai hartatik bizirik dagoen herri bakarra European, gure hizkuntzarekin, gizarte matrilineal baten azken arrastoekin... gu gara Europako azken indigenak. Hori batzuek ez dute ulertu nahi.

80ko hamarkadan matrilinealtasuna lehen lerrora ekarri zuten Caro Barojak, Barandiaranek eta beste hainbatek. Eta horrek eztabaida sortu zuen.

Konplexua da hori azaltzea, finen egoera politiko eta ideologiko jakina dagoelako ezta-

baida horren mamian. Gure izatea ezabatu nahi dutenei ez zaie interesatzen gure benetako jatorriaren berri izatea eta horren kontzientzia hartzea.

Nik hamarkadak daramatzat ikertzen, eta horretan jarraitzen dut, eta nire ustez euskaldunon izatearen jatorria amaren taldeko partaidetza da. Hori garbi ikusten da hizkuntzan bertan, euskaran; izeba, osaba, amaginarreba, aitaginarreba, loba... “-ba” bukaera horiek amaren taldeko partaidetza azaltzen dute. Hizkuntzan bertan dagoeneko ikusten da matrilinealtasuna eta senide izenen egituraren ez dago inolako zalantzarik.

Egungo senide arteko harremanetan ere ikusten omen dituzu matrilinealtasunaren arrastoak.

Bai, familia askotan egon naiz bertako emakumeen biografiak osatzeko eta haien eguneroko harremanetan oraindik arrasto horiek bizirik daudela ikusi dut. Adibidez, gurasoek alabarekin daukaten harremana. Nahiz eta egun gizarte patriarkal batean bizi, oraindik ikusten dira matrilinealtasunaren arrastoak: alabak gurasoak zaintzen ditu eta, trukean, etxea herentzian jasotzen du. Horren azpian dagoen ideia garbia da: alaba etxearena da.

Orduan, nola uler daiteke maiorazkoa?

Kolonizazio prozesuan sartu behar dugu hori ulertzeko. Maiorazkoa berez ez da gurea, hori Elizaren eskutik etorri zen. Gure gizartera kolonizazio prozesua etorri zenean, XVI. mendean bereziki, Eliza indarrean sartu zen eta Gaztelako Foroak Elizari boterea eman zion kolonizazio hori gidatu zezan. Helburua garbia zen: sistema patriarkala ezartzea. Beraz, senide egitura guztia eta etxeko antolaketa desagerrarazi beharra zegoen. Elizak sartu zuen jabetza pribatuaren dogma, etxea gizonarena zen ideia... Gure jatorrian, berriz, etxea beti amak alabari ematen zion, eta alabak bere alabari. Hori guztia Elizak aldatu egin zuen, kolonizazio prozesuaren baitan. Batzarrak, auzolanak... horiek guztiak ere hankaz gora jarri zituzten. Ordura arte jabetza komunitatearena zen, herriarena, eta Elizak jabetza pribatua bultzatu zuen.

Eliza patriarkatuaren konplize dela esan daiteke beraz?

Eliza patriarkatua da. Elizak boterea eskuratu zuenean, gure ordura arteko bizimodua eta harremantzeko modua ezabatzeko eta aldarazteko, sorginkeria indarrean jarri zuen. Horrela ezarri zuten patriarkatua. Emakumea kulturaren, hizkuntzaren eta gure baloreen transmisore zuzena zen eta hori hautsi beharra zegoen. Lurraldetasuna eta bizimodua, sistema osoa, zapaldu zuen kolonizazioak.

Gure kultura ezin da ulertu lurraldetasunik gabe, dena batera doa. Horregatik, gu espainiarrak izateko, beharrezkoa zen gure bizimodua eta ordu-



ra arteko antolaketa modua hankaz gora botatzea. Nola egin hori? Bizimoduaren eta antolaketaren ardatza emakumea zenez, emakumea suntsitu eta beldurtu egin behar zen.

Liburuan diozunez, inkisizioa izan da matrilinealtasunaren kontrako eraso larrienetakoa.

Bai, XVI. mendean hasi eta XIX. mendera arte. Elizak oso ondo zekien zertan ari zen emakume haiek zapaltzen zituenean. Matrilinealtasunaren kontrako eraso bat zen zalantzarik gabe, ordura arteko gizarte eredua desagerrarazi eta haien gizarte eredua, patriarkala, inposatzeko. Sorgina emakumea da, sortzailea, bizitzaren sortzailea eta gizartearen zutabea.

Jendarte matrilinealetan, zer paper du gizonak?

Emakumeak etxeko ekonomia kudeatzen du, etxeari dago-kion lurraren ekonomia, etxeko abereena... Etxekoandreak ez du bakarrik lan eta lan egiten, kudeaketa lanak egiten ditu, erabakiak hartzen ditu, eskumen asko dauzka. Eta, gizonak? Gizonak lana egiten du eta etxetik kanpoko egoerei aurre egiten die. Baina etxeko erabakiak, ekonomia kontuak, senideen arteko harremanak... horiek emakumearen esku daude. Eta ingurukoek, bere esanak betetzen eta onartzen dituzte.

Existitzen al da oraindik kultura matrilinealik munduan barna?

Bai, kontinente guztietan dago arrastoren bat. Europan, gu ba-

«XVI. mendean bereziki, Eliza indarrean sartu zen eta Gaztelako Foroak Elizari boterea eman zion kolonizazioa gidatu zezan. Helburua garbia zen: sistema patriarkala ezartzea»

«Alienazio prozesu batean gaude; komunikabideak, unibertsitateak, eskolak... Modu oso anbiguoan espainolak bihurtzeko prozesuan murgilduta daude. Ez badugu ezer egiten, belaunaldi pare batean haien helburua lortuko dute»

karrik. Polinesia aldean, Amazonian, Txinan... Zoritxarrez, patriarkatua bidea irekitzen ari da komunitate horietan ere. Baina oraindik irauten dute gizarte matrilineal horiek.

Txinako Mosuo herria aipatzen duzu, esaterako.

Herri horretan, senide-harremanei dagokionez, emakumea seme-alabekin bizi da amaren etxean. Etxea, amona edo ama hiltzen denean, alabarentzat izango da. Bestalde, harreman sexualak izateko, emakumeak gauean bere logelako atea irekitzen du. Horrela gizonak badakite emakumearen atean azal daitezkeela. Atean agertzen dena emakumearen gustukoa bada, berarekin emango du gaua. Baina gogoko ez badu, ezetza emango dio. Erabakia emakumearena da eta gizonak hori begirunez onartzen du. Harreman hori gau bakarrekoa edo luzeagoa izan daiteke.

Patriarkatua ondo pentsatutako estrategia da, beraz?

Zalantzarik gabe. Gaur egun kapitalismoarekin eta neoliberalismoarekin lotuta dago, baina aurretik feudalismoarekin, propietate pribatuarekin, matxismoarekin beti...

Deseraiki egin behar dugula esateak zentzu handia dauka beraz. Euskal gizartea jatorrian ez zelako patriarkatuaren gainean eraiki, ezta?

Horrela da. Oraindik martxan den kolonizazio prozesuaren esanetara, Elizak sekulako lana egin du euskal gizartean. Horren ondorioa da gaur egun bizi dugun egoera; matxismoa, autoritatea, zapalkuntza... Niretzako Eliza erakunde gaixo bat da eta horren ondorioak sufritzen ari gara.

**Gizarte matrilineala suntsi-
tzeak kaltea ekarri zien emakumei eta gizonei.**

Patriarkatuak emakumeak erasotzen, zapaltzen, jipoitzen eta hiltzen ditu, baina gizonek ere jaso dute beren zigorra; patriarkalak izan behar dute, autoritarioak izan, emakumea zapaldu. Gizarte matrilinealetan orekan bizi ginen gizonak eta emakumeak, komunitatean eta pareko botere banaketarekin. Naturarekin lotura zuzena genuen eta errespetatu egin behar zen. Herria lurraren parte sentitzen zen, ez lurraren gainetik zegoen entitate bat.

Badira gizarte matrilinealak mitoa direla esaten duten ahots kritikoak.

Bai, ahots interesatuak. Zoriturrez oraindik kolonizazio prozesuan gaude eta batzuek interes handia daukate matrilinealtasuna eta patriarkatua parean jartzeko. Hori espainolek egiten dute, patriarkatua izaten segitzea interesatzen zaielako. Eta emakume batzuk ere sartzen dira jokoan.

Haien esanean matrilinealtasuna mito bat da, erromanizismo hutsa. Baina haien interes bakarra guk gure izateari uko egin eta espainolak izatea da. Historia ere haiek idatzi eta kontatu digute, haien historia, ez gurea. Jo-ko maltzurra egiten ari dira gure nortasuna ezabatzeko.

Zure esanean egun boterera iristen diren emakume asko patriarkalak dira.

Noski. Zuk kargu bat duzunean, bai enpresa munduan, bai unibertsitatean, bai edonon, patriarkatuaren interesak defendatu behar dituzu, bestela ez duzu kargu hori izango. Hori gertatzen ari da. Emakume askok boterea daukate, baina



patriarkalak dira. Emakume asko daude feministak direla esaten dutenak, baina benetan patriarkalak dira.

**Zuretzat parekidetasuna al-
darrikatzea kultura matrili-
nealera bueltatzea al da?**

Niretzat erronka horixe da, gure jatorrira bueltatzea, kultura matrilinealera. Gure bizi-modua, antolaketa modua, balioak... berreskuratu egin behar ditugu. Alienazio prozesu batean gaude; komunikabideak, unibertsitateak, eskolak... Modu oso anbiguoan espainolak bihurtzeko prozesuan murgilduta daude. Ez badugu ezer egiten, belaunaldi pare batean haien helburua lortuko dute.

**Jendarte matrilineala oreka-
tuagoa eta zoriontsuagoa
begitantzen duzu?**

Zalantzarik gabe. Elkar hobeto zainduko dugu, haurrak eta pertsona helduak hobeto zainduak izango dira, haurrak komunitatearenak izango dira –eta ez jabetza pribatua, gaur gertatzen den bezala–, zahartzaroan dauden pertsonak ez dira baztertuak izango, pertsona jakintsu bezala ikusiak izango dira eta pisua izango dute komunitatean, etxekoandarearen jakintzari eta kudeatzeko gaitasunari garrantzia emango zaio...

**Kultura matrilinealean,
emakumeak al dauka zain-
tzaren pisua?**

Hori patriarkatuaren engainu interesatu bat da. Kultura matrilinealetan zaintza komunitatearen ardura da, gizon zein emakume. Patriarkatuak esaten du zaintza emakumearen lana dela, emakumeak hobe-

«Kultura matrilinealetan zaintza komunitatearen ardura da, gizon zein emakume. Patriarkatuak esaten du zaintza emakumearen lana dela, emakumeak hobeto zaintzen duela, horretarako jaioa dela...»



to zaintzen duela, horretarako jaioa dela. Eta horretatik etekin ekonomikoa ateratzen du patriarkatuak, emakumearen esplotazioaren kontu. Hori guztia, gainera, erruduntasunaren gainean eraiki du –zaintzen ez duen emakumea errudun sentitzen baita– eta Eliza arduratu da hori elikatzeaz, erruaren pisua jartzeaz. Kristau ona izan behar horretan patriarkatuaren interes asko ezkututzen dira. Dena ondo pentsatuta dago. Adibidez, garai batean atsolorrak ospatzen ziren haur bat jaiotzen zenean. Komunitate guztiak ospatzen zuen haurraren etorrera eta nolabait haur horren zaintzaren ardura hartzen zuen. Eliza tartean sartu zenean, gizona jai horretatik apartatu zuen, horiek emakumezkoen gauzak zirelakoan.